

# BULTZI-BARRIAK

■

Laster, lengo F. V. Lagundiak bultzi barriak ipiñiko ditu.

Lengo egunean proba batzuk egin ebezan bultzi barriakaz.

Donostia'n asi ta Durango'raino burni-bide barria ipiñi dabe.

La Robla izeneko bultzia ilteko arriskuan dago.

Txarto dagozan gauzak konpontze-ko, 1.600 milloa bear ei dira.

s

Donosti'ren eta Bilbo'rei artean ibilliko diran bultzi barriak dirala ta, «anden» guztiak igon bear dabez.

Lengo bultzi zarrak mailla bi eukezan, baiña oraingoak andcnaren parean joango dira.

— Fxartelen salneurriak igon egin dabe.

Len, esate baterako, Bilbo'tik Eibar 'era « pullman » irugarrencan 53 lauerleko kostatzen zan eta orain 70.

Korreok, barriz, 45 kostatzen ziran eta orain 55.

— Donosti ta Bilbo bitai tean ebillan



MARITXU TA ITXAS - ALDE.

«pullman» izeneko trenu kendu tgin dabe.

Orain arte sei bultzi izan doguz Donosti'Aa joateko, baiña « pullman » oneik kendu ondoren lau baino ez dira genditzen.

ZANGRONIZ'ek

## LABUR - LABUR

### BAKIO'KO JAIAN

Bakio'ko erri politcan, len zan politagoa, jaiak ospatu ziran dagonillaren 28'tik 31'ra.

Erriak ederto erantzun eutsoen antolatzaile jatorrai.

Jentetza ikaragarria izan zan pelotalekuan egun guztietan.

### MARITXU ABIO'RI OMENALDIA

Gure cretxiz, zirkingarriena, Maritxu Abio'ri egindako omenaldia izan zan.

Ezagutzen ez dabeneztat, Maritxu Abio; Bakio'tarrentzat ivlaritxu Eleizalde'ko; erriarcentzat, Itxas-alde dantzataldearen amama dala, esan geinke.

Berak, jostun trebea izanik, sasoirik txarreanean, jantzirik geienak egin zitu; orregaitik, eta benetan maitc dabelako, Egin eutsoen len esandako omenaldia.

ZER onen irakurle da eta guk be zorionik beroenak emoten dautsaguz.

### SONDIKA'KO EGAZKIN - ZELAIA

Barregarria, negargarria ez ba'litz, orain illebeta-inguru irakurri genduan albistea:

Ez ei da Sondika'ko egazkin-zelaia, aeroportua, egingo!

Ezin aztu doguz orain urte batzuk esandako itzak: «A mi no me quita el sueño».

Zen etc diño orain berba-lapiko arek?

Lo egiteko «pastilla'k» artzen ete ditu orain? Bestelakorik cz dogu ustel!

\*

### GOGORKERI BARIK

Askatasunaren ibilladi famatua amaitu zan, Jaungoikoari eskerrak, gogorkeri larregi barik.

Gero «matematikoak» buru-austerm, zenbat lagun izan etc ziran jakite o.

Zelako koloreko betaurrekoak, alako ta ainbeste eretxi!

Dana dala. asko izan ziran iruñara joandakoak: asko-joan cz ziranak be.

Batak besteari errespetatzen ikasteko izan ba'litz, txalotuko genduan, baiña... Donostia'n, irailaren 8'an, sortu zan burruka lotsagarria ikusi ondoren, gizatasunetik urrin gagozala uste dogu.

Nortzuk errudun?

### «ZER» ZELAN?

ZER onen lenengo zenbaki biak arrera ona izan ei-dabe. Bigarrenak obea. Guztiak eta dana ulertzen ei dabe!

Orixe zan gure asmo ta elburu bat. Bete ba'dogu, zorionak geure buruari be! Zen arraiol!

MUNEGAIN'ek

### AITITA - AMAMAK NEGARREZ

Ez da arritzekoa, mundu onetan uric asko igaro dituenak negar egin eta tamala izatea.

Eurentzat ainbeste gauza iguingarri ta negargari ikusten dabez...!

Olako jazoerak ugari izaten dira, eta ez dago kentzeko ezelako almenik. Baiña ba dagoz jazoera batzuk ulermen argiaz eta naimen onaz kendu leikezenak. Oneitariko batzui buruz diardugu.

\*

Joan dan udan sendi bat baserriko aita zar'aren etxera joan zan, oporraldia igaroteko asmoz eta aize ta eguzki argiaren billa, illebeta an igaroteko ustean.

Sendi ori, Bilbo'ko ikastetxe baten, nai ta nai ez, euskera batua ikasi-azo eutseen umeakaz joan zan.

Eldutakoan, asi ziran umeak euskera berba egiten, baiña aitita-amamak ezin aitu euskera ori! Tamalez eta negarrez geratu ziran, euren illobak ez ekielako eurak irakatsi eutsen antxiñako euskera eder eta polita.

EGILUZE